



Aztertu, aldarrikatu eta aritu

Zergatik eta nola eman urratsak
Bizitza Jasangarriak lortzeko



IRAKURKETA ERRAZEAN TESTUAK

Koordinatzaile:



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible

Web : www.mugarikgabe.org

Facebook: <https://www.facebook.com/mugarikgabe/>

Twitter: @mugarikgabe

Youtube: <https://www.youtube.com/user/MugarikGabeONGD>



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalatzen da.

Finantzatzaile:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Irakurketa errazerako egokitzapena: Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza

Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak: Mercedes Corretge

2020ko martxoa



Reconocimiento–NoComercial–SinObraDerivada 4.0 Internacional (CC BY-NC-ND 4.0)

Licencia completa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

© Ilustrazioenak: M.Corretge

Zer da dokumentu hau?

Argitalpen hau bertsio moldatua da, Mugarik Gabe-ren honako testuaren bertsio laburrago eta errazagoa: “Euskal Herriko kolektibotasunean eraikiz: bizi estilo jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzarako analisi eta aldarrikapenak”.

Argitalpen honen helburua da gure bizimodua aldatzeko beharraz hausnartzea. Gaur egungo eredu krisian dago, eta ez da jasangarria. Baina badaude alternatibak egoera aldatzeko; alternatiba horiek gauzatzeko aldaketa soziala eta politikoa behar da, baina baita aldaketa indibiduala ere, eguneroko bizitzatik.

Zergatik egiten dugu?

Jendarte justu eta bidezkoagoa eraiki nahi dugu, erdigunean bizitzaren eta planetaren zaintza izango dituen.

Hainbat kolektiboren elkarlanari esker izango da soilik posible. 2010ean **Desazkundera eta Bizitze Ona izeneko sarea** sortu genuen gizarte mugimendu, GGKE, sindikatu eta sare batzuek. Sarearen helburua honakoa zen: eredu soziala, politikoa eta ekonomikoa eraldatzea, ikuspuntu feministatik.

Urtero, 2011tik hasita, topaketak antolatu ditugu martxan jarritako esperientziak eta alternatibak ezagutzeko, eta lanaz, enpleguaz, ekologiaz, feminismoaz... eztabaidatzeko.

Azterketa, hausnarketa eta eztabaida kolektiboaren ondorioz, dokumentu hau aurkeztu nahi dugu. Dokumentuaren lanketan parte hartu dute ere **beste entitate batzuek**, eta “Tipi-Tapa Bagoaz” kanpaina du oinarri.

Dokumentu honek ez du amaierarik markatzen, ez da marko itxia, baizik eta eztabaida irekia, eraikitzen jarraitu dezagun.

Dezazkundera eta Bizitze


Ona Sarea:

Sarea honako antolakundeek osatzen dute: Ekologistak Martxan, Desazkundera, Economistas Sin Fronteras, Bizilur, Coordinadora de ONGD de Euskadi, ESK sindikatua, Ingenieria Sin Fronteras País Vasco, REAS Euskadi eta Mugarik Gabe

Beste entitate batzuek:

Goiener, Saretuz, Zentuz Kontsumitu, Emaús, EHNE Bizkaia, Sector de Mujeres, Xochilt Acatl y Setem Hego Haizea.

Zein da dokumentuaren egitura?



Aztertu →


- Pertsonen zaintza
- Elikadura-burujabetza
- Desazkunde energetikoa
- Ekonomia birlokalizatzea



aldarrikatu →

Zein dira gure proposamenak?

Gure proposamenak
goiko 4 gaien ingurukoak dira,
erakunde publikoei eta herritarrei zuzenduak.



aritu →

Nola egin dezakegu?

Alternatiba posibleak
aldaketa indibidual eta kolektiborako,
eta herritarrentzako.

Aurkibidea

Pertsonen zaintza, bizitza jasangarriaren oinarri gisa 6

- Aztertu
- Aldarrikatu
- Aritu

Elikadura-burujabetza 21

- Aztertu
- Aldarrikatu
- Aritu

Desazkunde energetikoa 30

- Aztertu
- Aldarrikatu
- Aritu

Ekonomia birlokalizatzea 46


- Aztertu
- Aldarrikatu
- Aritu

Pertsonen zaintza,
bizitza jasangarriaren oinarri gisa



Ezagutzea komeni den hitzak eta kontzeptuak...

JASANGARRITASUNA:	Jasangarria den zerbait denboran mantendu daiteke jendartean dauzkagun baliabideekin, eta ingurua kaltetu gabe.
EKOSISTEMA:	Sistema bat da, izaki bizidunen multzo batek, haien bizilekuak eta elkar erlazionatzeko duten moduak osatutakoa.
BATERATZEA:	Bateratzea deitzen zaio lana familiarekin edo bizitza pertsonalarekin ondo uztartzeari.
GENERO ARRAKALA:	Emakume eta gizonen artean dauden ezberdintasunak, hainbat arlori dagokionez: parte hartze maila, aukerak lortzea, eskubideak, boterea, soldatak, etab.
SOLDATA ARRAKALA:	Gizonek eta emakumeek soldata ezberdina jasotzea, lan berdina egiteagatik.
LANAREN SEXU BANAKETA:	Gizon eta emakumeen artean lanak edo ardurak ezberdin banatzeari deritzo, sexuaren arabera.
KRISTALEZKO SABAIA:	Lanean mailaz igotzeko emakumeek topatzen duten muga da, antolakundeen barne-mailan. Beren ibilbide profesionalak mugatzen ditu. Zaila da gainditzea, eta aurrera egiten eragozten die.
UNIBERTSALTASUNA:	Izaera unibertsala duena, hau da, pertsona guztiei berdin eragiten diena, kontuan hartu gabe bakoitzaren ezberdintasunak edo egoera.
ZERGA SISTEMA:	Jendarte bakoitzak zergak kudeatzeko daukan modua da: nork ordaindu behar duen, zenbat ordaindu behar duen eta zein irizpideren arabera.



AZTERTU

Zertaz ari gara?

Bizitza jasangarriek kontuan hartzen dute jendartearen ongizatea eta ingurumenaren zaintza, beharrak asetzeko orduan.

Bizitza jasangarriak sortzea pertsona guztien ardura da. Hori lortzeko, beharrezkoa da ulertzea bizitza dela jendartearen eta ekonomiaren elementurik garrantzitsuenak.

Ez da posible bizitza jasangarriak lortzea, politikaren eta ekonomiaren helburu nagusia dirua pilatzea baldin bada, kontuan hartu gabe jendartearen ongizatea, orain eta etorkizunean. Bizimodu jasangarriak lortzeko beharrezkoa da pertsonen zaintza.

Beste pertsonak zaintzea lan profesional gisa ulertu behar dugu, zeinean ez den ezberdintasunik egin behar generoagatik, klase sozialagatik, jatorriagatik edo azalaren koloreagatik. Baina, era berean, zaintza komunitarioetarako espazioak ere sortu daitezke, elkartasunaren bidez.

Beharrezkoa da pertsona zaintzaileek baldintza duinak izatea. Beharrezkoa da beren jardunaren aitortza jasotzea, zerbitzu publikoen eta jendarte osoaren aldetik.

Atal honetan, honako gaiei buruz hausnartuko dugu:

- Zainduak diren pertsonen beharrak, eta pertsona zaintzaileen beharrak.
- Bizitza eta jendartea sostengatzen duten pertsonen beharrak, eta haiekiko zein jarrera duten botere publikoek eta sistema kapitalistak.

Zein da egoera?

• Munduan

Hegoaldeko herrialde gehienetan, jendeak ez du soldatarik jasotzen bizirauteko eta elikatzeko egunero egiten duten lanaren truke. Zehazki, emakumeek egin ohi dituzten lanei buruz ari gara: egurra edo ura biltzea, baratza lantzea eta animaliak haztea.

Berdin gertatzen da pertsonen zaintzarekin. Ezinbesteko lana da bizitza mantendu ahal izateko, eta emakumeek egiten dute ia beti, doan. Ez dute aitortza sozialik ezta ekonomikorik lortzen horren truke. Eta beren lanak ongizate gehiago sortzen du, botere publikoek eskaintzen dutena baino.

Beren lanaren truke soldatarik jasotzen ez dutenez, egoera are larriagoa da, emakume asko beste herrialdetara joan behar direlako lan egin eta beren familiei dirua bidali ahal izateko.

1. Zaintza-kate globalak

Prozesu honetan emakume askok beren familiak abandonatu behar dituzte, herrialde aberatsagoetako familiak zaintzeko; horri deitzen diogu “zaintza-kate globalak”. Zaintza-kateak mundu osoko emakumeek osatzen dituzte, eta pertsona aberatsagoak zaintzen dituzte diru pixka bat irabaztearen truke, bizirauteko. Beren familiak uzten dituzte, eta beste pertsona batek zaindu behar ditu. Azkenean, kateko familia pobreenak zaintzarik gabe geratuko dira.

Hala saiatzen dira iparraldeko herrialdeetako beharrak asetzen. Hala ere, neurri horren ondorioz, ez iparraldea ez hegoaldea ezin dira sostengatu beren baliabide propioen bidez.

Eta hegoaldeko emakumeek beren burua behartuta ikusten dute beste herrialde batera joatera, kontuan hartu gabe beren desirak eta lan-prestakuntza.

Gainera, atzeritarrentzako egiten dituzten legeen ondorioz, beren lanak gaizki ordainduak daude eta langile gisa eskubide gutxi dituzte.

Konponbidea izan daiteke sistema bat, zeinak lehentasuna emango dion herrialde bakoitzak bere herritarrak zaintzeari. Horrela, hegoaldeko emakumeek ez lukete beren familia abandonatu beharko, beste batzuk zaintzeko.

Bidezko sistema izateko, esplotazioa sustatuko ez duena,
pertsonek tratatuaren oinarrian egon beharko dira
genero parekidetasuna eta errespetua klase sozial guztiekiko,
eta edozein jatorrizko herrialde, adin eta azalaren kolorearekiko.

Gaur egun urrun gaude helburu horiek lortzetik
sistema kapitalista batean bizi garelako,
non gutxi batzuentzako dirua gailentzen den
jendarte gehienarentzako bizi-kalitatearen gainetik.

Esplotazioa onartzen duen sistema da;
bereiziki, hegoaldeko herrialdeen eta emakumeen esplotazioa.

Sistema horren baitan ez dauka baliorik
emakume horiek egiten duten doako eta beharrezko lanak
ongizate soziala eta bizitza jasangarriak lortzeko.

- **Europako Batasunean eta EAEn**

Bizi garen gizartea, harro dago
emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko legeak izateaz.
Baina, egiaz, berdintasun hori ez da betetzen.

Gizona da, oraindik ere, dirua lortzen duena
lanaren bidez, eta autonomia izan daitekeena.
Emakumea, oraindik ere,
besteen zerbitzurako egon behar den pertsona gisa hartzen da,
besteen beharrak asetzeko.

1. Nork laguntzen du bizitza jasangarriak egon daitezen?

Pertsonen zaintzari dagozkien behar gehienak ordaintzen ez diren lanekin asetzen dira, eta emakumeek egin ohi dituzte. Hortaz, emakumeak dira sistema hau jasangarriagoa egiten dutenak.

Gauza bera gertatzen da adineko pertsonekin. Kapitalismoarentzat arazoa da pertsonak zahartzea, gero eta adineko pertsona gehiago daudelako eta ez dagoelako aski diru beren pentsioak ordaintzeko.

Hala ere, sistema honek ez du aitortzen adinekoek daukaten balio handia, jendarteari beren esperientzia, denbora eta jakintza ematen diotelako. Jendartea eta bizitzak jasangarriagoak izan daitezen laguntzen dute adineko pertsonak.

Bestalde, beren pentsioak ordaintzeko dirua lor daiteke, baldin eta diru gehien dutenek zerga gehiago ordaintzen badute, eta ustelkeria galarazita.

2. Zaintza beharrezkoagoa da krisi garaian.

Krisi ekonomikoen garaian, gobernuen gastua murrizten dute, hala nola, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen arloan.

Ondorioz, pertsonak zaintzeko zerbitzu gutxiago daude eta batez ere emakumeak izaten dira rdu gehien ematen dituztenak beren etxeetan, familia zaintzen.

Gero eta soldatapeko lan gutxiago egon kalean, orduan eta denbora gehiagorik egin behar da lan etxean, trukean lansaririk jaso gabe.



Pertsona horiei esker, bizitzak jasangarria izaten jarraitzen du,
zerbitzu publikoek eskaini beharko luketen lan baten bidez.

Zaintza gehien behar duten kolektiboen artean,
zerbitzu publikoek gehiago lagundu beharko luketena,
3 urtetik beherako haurrak
eta mendekotasuna duten pertsonak daude.

Hala ere, Europako Batasuneko herrialdeetan
3 urtetik beherako haurrentzako ikastetxeak falta dira
eta horietako asko pribatuak dira.
Familiek ordaindu egin behar dute ikastetxeak erabiltzearen truke.

Egoera antzekoa da Espainiako Estatu guztian,
mendekotasuna duten pertsonekin.
2014. urtetik aurrera zerbitzu publikoak ezabatu zaizkie
Mendekotasun Legea duten pertsonen.

Ondorioz, zerbitzu horiek behar dituzten familiak behartuta daude
zerbitzu pribatuak ordaintzera edo beren kabuz artatzera.


Hortaz, krisi garaian zerbitzu publiko eskasak egotearen ondorioz,
pertsona askok, bereziki emakumeek,
lana utzi edo ordu gutxiago egiten lan,
seme-alabak eta bere ardurapean dauden mendeko pertsonak zaintzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan oso gizon gutxi dira
lan baimena eskatzen dutenak edo ordu gutxiago lan egiten dutenak
beren seme-alabak zaintzeko.

3. Nola erabiltzen dute denbora gizonek eta emakumeek?

Europako Batasuneko ikerketa askoren arabera, emakumeek denbora gehiago eskaintzen diete etxeko lanei gizonek baino. Horregatik, emakumeek aukera gutxiago dute etxetik kanpo soldatapeko lan bat topatzeko.

Ondorioz, gizonekiko mendekotasun handiagoa daukate, eta etxean indarkeria egoerak pairatzeko aukera gehiago dituzte alde egiteko ez dirurik ez baliabiderik ez izateagatik.



4. Zein enplegu lortzen dituzte emakumeek?

Azken hamarkadetan gora egin du emakumeen enplegu-tasak Europako Batasunean eta EAEn.

Horrek esan nahi du emakume gehiagok lortu dituztela ordaindutako lanak etxetik kanpo.

Hala ere, enplegu horiek ezaugarriak aztertu behar dira, eta alderatu egin behar dira gizonen lan-baldintzekin.

Emakume eta gizonen arteko laneko ezberdintasunak:

- Gizonek lanaldi osoko kontratu gehiago dituzte, emakumeek baino. Horren arrazoia da oraindik ere emakumeak direla etxea eta familia zaintzen denbora gehiago pasatzen dutenak.
- Gizonek kontratu mugagabe gehiago lortzen dituzte, emakumeek baino. Horren arrazoia da oraindik ere emakumeak direla kontratu gabeko lan gehienak dituztenak, beste familientzako etxeko zerbitzuei lotutako lanak, alegia.
- Gizonek emakumeek baino diru gehiago jasotzen dute lan berdina egiteagatik. Gainera, aukera gehiago dute zuzendaritza postuak eta erantzukizuneko postuak lortzeko.
- Emakumeak dira, maiz, lan egiteari uzten diotenak seme-alabak izaten dituztenean. Emakumearen erabakiaren ondorioz izan daiteke, edo enpresek ez dituztelako kontratatatu nahi adingabeak ardurapean baldin badituzte.

5. Etxeko langileen egoera.

Etxeko langile gisa aritzen direnek ez dituzte beste langileek bezalako eskubide eta lan-baldintzak.

Ondorioz, etengabeko esplotazioa pairatzen dute.

Enplegu horren ezaugarrietako batzuk dira honakoak:

- Gainerako emakume langileek baino ordu gehiago lan egiten dute astean.
- Ez dute ordu librerik edo diru gehiagorik jasotzen gauez lan egiteagatik.
- Beste langileek baino diru gutxiago jasotzen dute kaleratzen dituztenean.
- Beharrezko prestaketa jakinik edo titulaziorik ez duten zereginak egiteko eskatzen diete, hala nola adinekoen edo adingabe gaixoen zaintza.

Gobernu eta erakundeek badakite zein den etxeko langileen esplotazio egoera.

Baina ez dute ezer egiten hori aldatzeko, diru aurrezteko aukera gisa ikusten dutelako.

Bizi garen sistema politiko, ekonomiko eta sozialaren ondorioetako bat da.

6. Norentzako dira onak lege ekonomikoak?

Lege ekonomikoek on egiten diete gizonei, emakumeei baino gehiago. Gaur egungo neurriak aztertuta ikus daiteke hori, emakumeak gehiago diskriminatzen dituztelako. Bateratzeko neurrietan, adibidez, aitatasun eta amatasun baimenen arteko ezberdintasunak ikusi ditzakegu. Baita zerga-sisteman ere, gizonek alargun-pentsio altuagoak dituztelako.

Ba al
zenekien?

Emakumeek **26.5 ordu** ematen dituzte astean, ordaindu gabeko **zaintza-lanak, etxeko-lanak eta laguntzeko zereginak egiten**. Gizonek, aldiz, **14 ordu** astean. (EIN, Estatistikako Institutu Nazionala. 2018. urtea)

Seme-alabak zaintzeko eskatzen diren eszedentzien **% 92** emakumeek eskatzen dituzte.

(Instituto de la Mujer y para la Igualdad. 2018 urtea)

Egunean 20 ordutik gorako zaintza behar duten pertsonen **erdia beren etxeetan zaindu behar dituzte, beren familiekin**. (Espainian)

EAEn, gizonek **7.000 euro gehiago** irabazten dute urtean batez besteko, emakumeekin alderatuta.

Etxeko langileek **60 ordutik** lan egin dezakete astero.



ALDARRIKATU

Zein dira gure proposamenak?

- 1. Ordu gutxiago lan egitea**, lanerako adina duten pertsona guztiek lan egiteko aukera izan dezaten.
- 2. Ikusaraztea** elkarren beharra daukagun pertsonak garela. Eta, aldi berean, denok gaudela ingurumenaren menpe
- 3. Espazio publikoak sortzea erraztea** bizikidetzarako eta elkar laguntzeko. Beharrezkoak diren espazioetako batzuk dira: hiri baratzeak, komunitatearentzako jantokiak, garbitegiak, objektuak eta ezagutza elkarbanatzeko espazioak eta aisialdirako eta belaunaldi ezberdinak elkartzeko espazioak.
- 4. Erakunde publikoek beharrezko neurriak hartu ditzaten sustatzea**, munduko pertsona guztiek zaintza-sistemarako eskubidea izan dezaten.
- 5. Osasunaren eta hezkuntza publikoaren unibertsaltasuna bermatzea**, pertsona guztientzako doako eta kalitatezko eskubide bat izan dadin.
- 6. Bizimodu jasangarria izatearen garrantzia eskolan irakastea**. Bizitzarako oinarritzko beharren inguruan hezte eta hori lortzeko egin behar dugunari buruz hezte.

7. Aitatasun eta amatasun baimen berdinak lortzea.


Baimenaren iraupen guztia ordaintzea, eta iraupen berekoak izatea.

8. Etxeko langileentzako

gainerako langileen eskubide berdinak lortzea,
Langileen Estatutuan agertzen direnak.

9. Soldata arrakala murrizteko borrokatzea,

eta soldata-ezberdintasunik ez egotea
gizonek eta emakumeen artean, lan berdina egiteagatik




ARITU

Zer egin dezakegu? Alternatibak

Zaintza-lanak emakume eta gizonen artean banatzea,
zeregin horretan maila bereko elkarlana egon dadin bi sexuen aldetik.

Ekimenak sortzea,
pertsonek zaintza gizarte osoak partekatzen duen zeregina izateko.
Ekimen horietako batzuk, honakoak izan daitezke:


- Egoitza edo etxebizitza partekatuen proiektuak.
- Guraso-sareak, seme-alabak elkarrekin hazteko.
- Hainbat belaunalditako pertsonen arteko zaintza-sistema.
- Objektuak eta ezagutza elkarbanatzeko espazioak.
- Hezkuntza-eredu ezberdinak erakusten dituzten esperientziak partekatzea.



Informazio gehiago:

- InteredPedagogía de los cuidados (sakatu **hemen**).
- Emakumeen Mundu Martxas (sakatu **hemen**).
- Etxeko Langileen Elkartea (sakatu **hemen**).
- Sare ekofeminista (sakatu **hemen**).
- Trabajadoras no Domésticadas (sakatu **hemen**).

Elikadura burujabetza



Ezagutzea komeni den hitzak eta kontzeptuak...

SISTEMA KAPITALISTA:

Sistema ekonomiko eta soziala, jabetza pribatuan oinarritzen dena. Sistema horretan, batez ere, garrantzitsua dira dirua, kontsumismoa eta ondasun materialak.

GLOBALIZAZIOA:

Mundu mailako prozesua da: gero eta komunikazio eta elkarrekiko dependentzia gehiago dago munduko herrialde ezberdinen artean. Horrek eragina du ekonomian, teknologian, politikan, kulturen...

TRANSNAZIONALAK:


Enpresa handiak dira, negozioak eta jarduna herrialde askotan dutenak. Multinazional ere deitzen zaie.

EUROPAKO NEKAZARITZA POLITIKA:

NPE ere deitzen diote (Nekazaritza Politika Erkidea). Europako Batasuneko (EB) politika zaharrena da; 1962. urtean sortu zen. Elikagaien nekazaritza-ekoizpenari lotutako gauzak kudeatzen ditu: adibidez, EBko elikadura enpresei eta nekazari zein abeltzainei ematen dizkieten diru-laguntzak.

DESLOKALIZAZIOA:

Deslokalizazioa gertatzen da enpresa batek lekuz aldatzen dituen herrialde aberastu batean dituen lantokiak; gehienetan, herrialde pobretuetara, enpresarentzat merkeagoa delako.



AZTERTU

Zertaz ari gara?

Elikadura-burujabetzak zerikusia du nekazaritza sektorearekin eta hura antolatuta dagoen moduarekin: zer ekoizten da, nola ekoizten da eta noren esku dauden erabakiak.

Nekazaritza sektore estrategikoa da edozein herrialderentzat. Herritarrentzako elikagaiak hornitzeko ezinbestekoa izateaz gainera, garrantzitsua da ere lurraldearen, ingurumenaren, kulturaren eta herrien nortasunaren kudeaketan.

Nekazaritzako elikaduraren eredua, gaur egun, sistema kapitalistaren baita dago. Ikusarazi nahi digute hori dela sistema posible bakarra munduko pertsona guztiak elikatzeko, mundu globalizatu batean, baina ondorio oso negatiboak ditu honako arloetan:

- pertsonen osasunean
- bioaniztasunean
- ingurumenaren kalitatean (kutsadura...)
- ondasun komun naturalean
- aniztasun kulturean
- transnazionalekiko dependentzian

Labur esanda, herriek beren lurraldeekiko duten burujabetza suntsitzen du.

Zein da egoera?

• Munduan

Mundu globalizatu batean, Estatuaren politikek gero eta gutxiago erreparatzen diete nekazari eta kontsumitzaileei, eta gero eta gehiago enpresa handiei, bankuei, eta nazioarteko entitateei, hala nola **MMA, NDF edo Munduko Bankuari**, horiek baitute erabakitze boterea, eta ez dira demokratikoki hautatuak izan.

MMA: Munduko Merkataritza Antolakundea.

NDF: Nazioarteko Diru Funtza

Egungo nekazaritza politika nazionalak honako hauetara daude zuzenduta:

- esportatzeko ekoiztu
- ekoizpen agroindustrialak garatu
- monolaborea sustatu
- langileak esplotatu
- **Merkataritza Askeko Itunek** inposatzen dutenaren aurrean amore eman.

Merkataritza Askeko Ituna (MLI):

Itun hauek herrialdeen arteko akordio komertzialak dira, zergak murriztu edo ezabatze, produktuak herrialde batetik bestera eramatean.

Politika horien ondorioz, nekazariak pobretu egiten dira, eta bereziki kaltetzen dira hegoaldeko herrialdeak eta emakumeak.

Nekazaritza esplotazio txiki eta ertainak desagertzen dira, eta biztanleek landa eremua uzten dute, hirietan lan egiteko.

Gainera, nekazaritza sektorea zahartu egiten da ez dagoelako gazterik erreleborako, bioaniztasuna galdu egiten da eta emakumeek eskubide gutxiago dituzte...

1996an Via Campesina jaio zen, sistema kapitalista horri erantzuna emateko. Elikadura-burujabetza defendatzen du, autonomia, jasangarritasuna, ekitatea, birbanaketa eta justizia printzipioetan oinarrituta. Mugimendu hau, kolektibotasuna eta parte hartzea oinarri,

• Euskal Herrian

1970eko urteetan, industrializazioarekin,

euskal nekazaritza kultura desagertzen hasten da.

1986tik aurrera, NPEa mendialdeko nekazaritza zonaldeak kaltetzen hasten da.

Euskal lurraldea txikia da, eta espekulazioa pairatzen du

lurra bestelako helburuekin erabiltzeko, hala nola azpiegitura handietarako (Abiadura Handiko Trena edo AHTa, edo fracking bidezko gas erauzketa).

Horren ondoriorik ikusgarrienak honakoak dira:

- tokiko ekonomia eta merkatua desagertzea
- lurrarekiko ezagutza eta balioak galtzea
- sektore zaharkitua eta zorduna
- kanpoaldeko eta banatzaile handien dependentzia
- energia kontsumoaren eta CO2 ekoizpenaren gorakada
- ikuspegi oso murrizteko nekazal turismoaren sustapena

Euskal emakume nekazariak ere desparekotasunak bizi dituzte:

errenta baxuagoak, esplotazio txikiagoak

eta erabakitzeke ahalmen gutxi esplotazioen jabeak ez izateagatik.

Euskal bizimodu tradizionalak, baserrikoak,

eredu autonomo eta jasangarria dauka,

eta egungo ereduari erantzuteko balio dezake.

Hori dela eta, eredu aldaketarako aurrerapausoak ematen ari dira

nekazal sektoreko gazte eta konprometituenekin

(ingurumen eta energia kontuetan laguntza, formazioa...)

saretze lana oinarri hartuta.

Ba al zenekien?

2018. urtea: **820 milioi** pertsonatik gora gose dira munduan.
Hau da, **9** pertsonatik **1**.

“Iparralde Globaleko” herrialdeek kontsumitzen dituzten produktuen **%5** soilik ekoizten dute.

Munduko biztanleen %60 nekazaria da (nekazari, arrantzale, artzain...)

Nekazal biztanleriaren %70 emakumea da.

Minutuero nekazaritza-esplotazio bat desagertzen da Europan (CPE-ren datua).



ALDARRIKATU

Zertaz ari gara?

1. Lurra eta ura: bizitzaren ondasun komunak.

Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-eredu jakinak, zeintzuek kalitatezko eta transgenikorik gabeko elikagaiak ekoiztuko dituzten, lurralde antolaketaren planen baitan.

2. Parte hartu, lurraldeari buruz pentsatzeko.

Lurrari zein erabilpen emango diogun hausnartzea, kontuan hartuta oreka beharrezkoa dela erabilera sozialaren eta ondare naturala kontserbatzearen artean.

3. Tokiko nekazaritza-jakintzari balioa eman.

Jakintza horrek bioaniztasuna eta jasangarritasuna bermatzen ditu, eta gauzak aldatzeko gai diren subjektu bihurtzen ditu pertsonak.

4. Tokiko ekoizpen autonomoak sustatu.

Ekimen txikiei esker, nekazaritza instalazioek aurrera jarraitu dezakete, eta kanpoan erosi beharrekoa murriztu dezakete.

5. Eredu agroekologikorantz joan.

Ekoizpen sektoreari aplikatuta, abeltzaintzan eta arrantzan, eta baita elikagaiak eraldatzeko sektoreari ere.


6. Esplotazio txikientzako higiene eta osasun arauak sustatu, beren aukeren neurrian.



7. Tokiko kontsumoaren garrantzia ikusarazi herritarrei.

Kontsumoa boterea duen eta gizartea eralda dezakeen tresna da.

8. **Administrazio publikoek, beren lizitazio eta kontratuetan,** apustua egin dezatela tokiko, kalitatezko eta nekazaritza ekologikoko elikagaiak sustatzen dituzten **eskola jantoki, jantoki sozial eta egoitzen alde.**




ARITU

Zer egin dezakegu? Alternatibak

Hemen erosi, saldu eta kontsumitu, hemen ekoizten duguna. Maila indibidualean, familian edo taldean egin dezakegu, hainbat ekimenetan parte hartuz:


- Kontsumo taldeen bidez, harreman zuzena nekazariekin
- Kooperatiba mistoak (ekoizle eta kontsumitzaileak)
- Ekonomatoak
- Ekoizpen txikiak babesten dituzten banatzaile alternatiboak
- Gure baserritarren produktuak dituzten tokiko merkatuak
- Tokiko produktuen eta ekologikoen dendak
- Kontsumitzaile elkarteak.



Informazio gehiago:

- Elikadura-burujabetza eraikitzen duten tokiko esperientziak (sakatu [hemen](#)).
- Etxalde aldizkaria (sakatu [hemen](#)).
- Vía Campesina, nazioarteko nekazal mugimendua (sakatu [hemen](#)).
- Bizilur (sakatu [hemen](#)).
- EHNE Bizkaia (sakatu [hemen](#)).

Desazkunde **energetikoa**



Ezagutzea komeni den hitzak eta kontzeptuak...

DESAZKUNDEA: Hazkunde ekonomikoaren ideia baztertzen du, baita gero eta gehiago ekoiztearen ideia ere.
Ekoizpen ekonomikoa murriztea proposatzen du, naturaren eta gizakien artean, eta oro har pertsonen artean, harreman orekatuagoa sortzeko.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK: Erabili arren inoiz bukatze ez direnak, edo birsortu daitezkeenak.
Adibidez: haizearen, eguzkiaren, itsasoaren, lurraren beroaren... energia

ENERGIA BERRIZTAEZINAK: Erabili ostean birsortu ezin direnak, edo birsortzeko denbora behar dutenak.
Adibidez, ikatza, petrolioa, uranioa, gas naturala...

ERREGAI FOSILAK: Jatorri fosileko baliabide energetikoak.
Hau da, historiaurrean, animalia eta landareen hondarren fosilekin sortu zirenak.
Energia berriztaezinak dira.

ERAUZKETA GAILURRA: Baliabide baten erauzketa, adibidez petrolioa, gehienezko kopurura heltzen den unea.
Hortik aurrera, agortzen hasten da.
Kalkulatzen dute petrolioak bere erauzketa-erpina gainditu zuela 2006. urtean.

**POBREZIA
ENERGETIKOA:**

Etxebizitza batean, eguneroko beharrak asetzeko nahikoa energia ordaindu ezin dutenean gertatzen da. Edo diru-sarreraren zati handi bat beren etxebizitzako energia-faktura ordaintzeko behar dutenean.

**ERAGINKORTASUN
ENERGETIKOA:**

Produktuak eta zerbitzuak ekoizteko beharrezko energia kopurua murriztea. Energia aurrezteak ere esaten zaio.

**AZTARNA
EKOLOGIKOA:**

Gure bizimoduak planetan duen inpaktua neurtzeko adierazlea da, eta planetak berak horri erantzuteko duen ahalmenarekin konparatzeko. Adibidez, baliabideak sortzeko eta herri bakoitzak sortzen dituen hondakinak asimilatzeke behar diren lur, ur eta aire kantitatea neurtzen ditu.

**KARBONO
AZTARNA:**


Gizakiek, produktu bat fabrikatzean edo eguneroko zereginetan, ekoizten dituzten emisio edo gas kantitateen adierazlea da. Planetan uzten dugun arrastoa da. Karbono aztarna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta kaltegarriagoa da ingurumenarentzat.

AGROERREGAIA:

Erregai likidoak dira, lehengai begetalekin egindakoak, ia beti eskala handiko nekazaritza lurretan. Adibidez, agroetanol delakoak gasolina ordezkatu dezake, eta azukre kanabera, erremolatxa, artoa, garia edo garagarretik abiatuta ekoizten da. Agrodiesela, gasolioa egiteko, ekilorea, koltza, palma edo sojarekin egiten da.

**FRACKING EDO
HAUSTURA HIDRAULIKOO
FRACTURA HIDRÁULICA:**

Lur azpitik petrolioa edo gasa erauzteko teknika. Putzuak irekitzeko ura injektatzen da presio altuan, beste elementuekin nahastuta, lurrazpiko arroka hausteko.



AZTERTU

Zertaz ari gara?

Energia funtsezkoa da gizartea garatzeko.
Gizakiok bi energia mota erabiltzen ditugu:
barnekoa, gure gorputzak berak sortzen duena;
eta kanpoko, kanpoan ekoizten dena,
eta elikatzeko, lekualdatzeko, berotzeko...erabiltzen duguna.

Kanpo-energia hori lortzeko moduaren arabera,
nork erabili dezakeen eta erabiltzen dugun moduaren arabera,
energia-eredu bat edo beste zehazten da.
Energia-ereduak ondorioak ditu
pertsonei bizi-baldintzetan
eta planetaren jasagarritasunean.

Egungo energia-ereduak lotura dauka
sistema kapitalistaren baitako
eredu politiko, ekonomiko eta sozialarekin.
Hortaz, energia ere arlo garrantzitsua izan daiteke
sistema soziala desazkunderantz eraldatzeko.
Energia-eredua aldatzeko eredu soziala aldatu behar da.

Energiaz ari garenean, honakoa izan behar dugu kontuan:

- Nondik ateratze dugu: baliabide energetikoak (naturan eskura daudenak, eraldatu baino lehen). Energia-baliabide horiek berriztagarriak edo berriztaezinak izan daitezke.
- Zertarako erabiltzen dugu: erabilera energetikoak (baliabidea elektrizitate, erregai... eraldatutakoan).

Zein da egoera?


- **Munduan: egungo energia-eredua eta bere ondorioak**

Azken bi mendeetan, XIX eta XX. mendeetan, gizarte garatuen hazkundeak lotura izan du energia erabiltzeko teknika berriekin; batez ere, erregai fosilen energia erabili izan da, lehenbizi ikatza izan zen, eta gero petrolioa eta gasa.

Ekonomia kapitalistaren baitan, energia kontsumo-produktu bat gehiago da.

Energia erabili eta kontsumitzen da, honetarako:

- gero eta produktu gehiago ekoizteko,
- gero eta azkarrago bidaiatzeko,
- pertsonen lana ordezkatzeko duten makinak erabiltzeko,
- behar berriak sortzeko.



2018AN MUNDUAN KONTSUMITUTAKO ENERGIA PRIMARIOA



PETROLIOA
%34



IKATZA
%27



GAS NATURALA
%24



ENERGÍA HIDRAULIKOA
%7



ENERGIA BERRIZTAGARRIA
%4



ENERGIA NUKLEARRA
%4

Eredu hori ez da jasangarria, honengatik:

- Baliabideak mugatuak dira, ez dute betiko iraungo. Fossilak sortu ahala baino azkarrago kontsumitzen ari gara. Horietako batzuk, petrolioa kasu, erauzketa-gailurrera iritsi dira.
- Azpiegitura handiak behar dira energia eraldatzeko. Horregatik findegiak, urtegiak, zentralak... eraiki behar dira.
- Azpiegitura handiak behar dira energia banatzeko, ekoizten den eta kontsumitzen den tokien arteko distantziagatik. Ondorioz, oliobide eta gasbideak eraiki behar dira.

Egungo energia-ereduaren ondorioak honakoak dira:

1. Gizartearen ongizatean.

Energia gehiago ekoitzi eta kontsumitzea hobeto bizitzearekin lotzen da. Teknologia hobetzeak eta energia merkatzeak, berez, pertsonen bizimodua hobetzen lagunduko zuela suposatzen zen. Baina munduko leku guztietan ez da neurri berean energia eskuratzen edo kontsumitzen. Ondorioz, desparekotasunak erreproduzitu egiten dira herrialde pobretu eta aberastuen artean.

2. Zaintza lanen arloan.

Energia funtsezkoa da zaintza lanak egin ahal izateko. Herrialde pobretuetan, energia kontsumo gehiena etxebizitzetan erabiltzeko da: janaria prestatzeko eta berotasuna mantentzeko.

Zeregin horien arduradunak emakumeak dira, zeintzuek beharrezko erregaia bilatzeko ardura ere baduten. Zonalde horietan erregai gutxi dago, eta energia ez-garbietatik dator. Horregatik, emakumeak gaixotu egiten dira, eta mugatuta ikusten dituzte garapen pertsonalerako, parte hartzeko edo dirua irabazteko aukerak.

3. Aitortzari eta energia eskuratzeari dagokionez.

Handia da emakumeek energiaz duten ezagutza, baina hori ez da inoiz aitortu izan. Gaur egun, emakumeek energiaren sektorean lan egiten dute, baina ez erabakiguneetan. Energiaren eskuragarritasuna ere ez da berdina herritarrena artean; pobrezia energetikoak bereziki eragiten die emakumeei.

4. Negoziazioan eta boterearen erabileran.

Energia-baliabideen kontrolak gatazkak sortzen ditu mundu osoan:
gerrak; natura etengabe esplotatzea;
herri, hizkuntza eta kultura indigenak desagertzea;
giza eskubideak ez errespetatzea...

Baliabideetan oso aberatsak diren lurraldeak daude.
Bertan, enpresa handiek baliabide-kopuru handia ateratzen dute,
azpiegiturak eraikitzen dituzte eta bertako komunitateak suntsitzen dituzte.
Komunitate horiek ez daukate
beren eskubideak defendatuko dituzten instituziorik.
Zonalde horietan, emakumeak dira, berriz ere, bereziki kaltetuenak.

5. Ingurumenea.

Baliabideak agortu egiten dira, eta erauzketa
gero eta zailagoa, garestiagoa eta kutsakorragoa da.
Ondorioak: basoak, animaliak eta landareak galtzea,
eta zorua eta ura kutsatzea.

Alternatibak bilatzen dira, hala nola frackinga edo haustura hidraulikoa,
area bituminosoa edo petrolioizkoa, gordin astunak
edo hobiak zabaltzea zonalde zaurgarrietan edo irisgarritasun gutxikoetan.
Baina frogatu egin da igorpen gehiago emititzen dutela,
baliabide gehiago gastatzen duela, ingurumena gehiago kaltetzen dutela...

Energia kontsumoaren gorakadak, etxebizitzetan zein industrian eta garraioan,
atmosfera igortzen diren isurketa kutsakorrak areagotzen dituzte.
erregai fosilak gehiago erabiltzen ditugulako
eta haiekiko menpekotasun gehiago dugulako.

Ez dirudi ere konponbidea zentral garbietan dagoenik
nahiz eta gutxiago kutsatzen duten,
isurketa kantitatea oso handia delako oraindik.
Eta ez dirudi ere konponbidea energia-eraginkortasuna denik,
kontrako eragina izan dezakeelako,
gutxiago kutsatzeagatik askoz gehiago erabiltzen hasi daitekeelako.

Zor ekologikoa sortzen da,
zonalde bateko ekonomiak ingurunean duen inpaktuak
ez duenean zonalde hori bera kaltetzen,
baizik eta beste herri edo komunitate bat.
Herrialde aberastuen ekintza askok zor ekologikoa sortzen dute,
herrialde horietan energia kontsumitzeak eragin negatiboa daukalako
beste herrialdeetako lurralde naturalean (basoak, isurketak, kutsadura...)





Gehien kontsumitzen den tokiak hiriak dira.
Izan ere, hirietan bizi da munduko biztanleen erdia baino gehiago.
Hirietan ez da kontsumitzen den ia ezer ekoizten,
baina bertan kontsumitzen da energia gehien
eta bertan sortzen dira hondakin gehien.

Energia gehien kontsumitzen dute honakoek:

- **Industria:** energia primarioaren heren bat kontsumitzen du eta energia elektrikoaren erdia.
- **Garraioa:** milaka auto daude munduan eta egungo turismo-eredua (hegaldi merkeak, egonaldi laburrak urruneko tokietan...)
- **Hirugarren sektorea eta zerbitzuak** (hezkuntza, osasuna, lana, aisialdia...)

Agroerregaiak ere ez dira ohiko erregaientzako alternatiba egokia.

Ingurumenean eta pertsonengan zuzeneko inpaktua daukate:
kutsadura, basogabetzea, suteak, fumigazioak,
lurrak galtzea, enplegua galtzea...

• Euskal Herrian

Gaur egun guk dugun energia-ereduak orain arte ikusitako ezaugarri berdinak ditu.
Energia zentral handietan ekoizten da, erregai fosilekiko menpekotasun osoa dugu, eta guztiak datoz Euskal Herritik kanpo.
Garraiorako azpiegitura handiak sortzen dira, energia eta ura garraiatzeko, eta baita pertsonak eta merkantziak garraiatzeko ere.

Lurralde txikia izan arren, Euskadi ezaguna da, gainera, errepideak eta etxebizitzak masiboki eraikitzeagatik.

Euskal Herrian kontsumitzen dugun energia:

- **la guztia erregai fosiletatik dator,**

gero eta gehiago kanpotik inportatzen baitira.

Petrolioaren inportazioa hazi egin da 1940. hamarkadatik aurrera.

Eusko Jaurlaritzak gas naturalaren aldeko apustu handia egin du.

Horren adibide da Bizkaiko Badia gunea, energia berriztagarriak baztertuz.

- **Horrek zor ekologiko handia sortzen du**

hala nola Nigeriarekin, handik baitator petrolio eta gasa, edo Indonesiarekin, handik baitatoz agroerregaiak.

- **Hidrokarburo ez-konbentzionalen aldeko apustua;**

Lurrean zein itsasoan fracking bidez erauzteko ikerketak egin dituzte, koke ekoizpenerako planta zabaldu da Petronor findegian.

Proiektu horiek oso erasokorrak dira ingurumenarekin.

- **Han sortzen den energia, industria eta garraiora bideratzen da bereziki (80%).**

Gainerakoa etxebizitza eta zerbitzueterako da, eta minimo bat lehen sektorerako

Industriak askoz energia gehiago kontsumitzen du zuzenean, eta pertsonak zeharka kontsumitzen dute, industriak sortzen dituen zerbitzu eta ondasunak kontsumitzeko.

Merkantzien garraio ia guztia errepidez egiten da,
Estatu mailako batez bestekoaren gainetik.
Garraio bideak eraikitzeko erabiltzen den zementuak ere
energia-kontsumo handia suposatzen du.

Ba al
zenekien?

Munduan kontsumitzen den **energiaren %90** baino gehiago **jatorri fosilekoa da** (ikatz, petrolio, gas naturala, nuklearra...)

Pobrezia energetikoa, Espainian, biztanleen %18 kaltetzen du.

2016ko datuen arabera, munduan **1.200 milioi automobil** baino gehiago daude martxan.

Espainia da (Txinaren atzetik) **biztanle bakoitzeko Abiadura Handiko Trenaren kilometro gehien, aireportu gehien eta autobide kilometro gehien** dituen munduko herrialdea.


2003an, Euskadin, **apenas kontsumitzen zen gasik.**
2006an **3 milioi tona inportatu ziren.**



ALDARRIKATU

Zein dira gure proposamenak?


1. Lege bidez debekatzea politikariak boterezko postuak izatea energia-enpresetan.
2. Denboraldi batez debekatzea fracking bidezko erauzketa eta ikerketak egiteko baimenak erretiratzea.
3. Enpresa transnazionalak exijitzea sortutako kalteengatik ordaindu dezatela; gasa, petrolio eta uranioa esplotatzeagatik Mexikon, Guatemalan, Ekuadorren, Bolivian, Perun, Indonesian, Nigerian...
4. Sektore guztietan energia aurreztearen aldeko apustua egitea.
5. Energia oinarritzko eskubide gisa aitortzea lege bidez, horrela, pertsona guztiek eskuratu dezaten bizitza duina bermatuko duen gutxieneko energia kopurua.



ARITU

Zer egin dezakegu? Alternatibak

- Kontuan hartzea energia-eraginkortasun kontuak gure etxeetan: aurrealdeak isolatzea, leiho bikoitzak, berogailuaren tenperatura konstante moderatua...
- Bizikleta eta garraio publikoa erabiltzea, eta oinez ibiltzea.
- Autoaren erabilera murriztea, edo beste pertsonekin partekatzea.
- Energia berriztagarrien tokiko kooperatiben alde egitea, enpresa multinazional handien alde egin ordez.




Informazio gehiago:

- Plataforma por un Nuevo Modelo Energético (pincha [aquí](#)).
- Tradener, trantsizio energetikoa eta demokrazia (pincha [aquí](#)).
- Energia sortu eta hornitzen duten kooperatibak:
 - Goiener, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba (pincha [aquí](#)).
 - Som Energía – Energía Gara (pincha [aquí](#)).
 - Barrizar, energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien proiektuak (pincha [aquí](#)).
 - I-Ener (para el estado francés) (pincha [aquí](#)).
- Ingeniería Sin Fronteras (pincha [aquí](#)).
- Ekologistak Martxan (pincha [aquí](#)).

A colorful, stylized illustration of a winding road through rolling hills. The hills are colored in shades of orange, red, and green. The road is a light gray color. Various small houses, trees, and a car are scattered along the road and on the hills. Two birds are flying in the sky above the hills.

Ezagutzea komeni den hitzak eta kontzeptuak...

DESLOKALIZAZIOA:	Deslokalizazioa gertatzen da enpresa batek lekuz aldatzen dituenean herrialde aberastu batean dituen lantokiak; gehienetan, herrialde pobretuetara, enpresarentzat merkeagoa delakoa.
KRISI SISTEMIKOA:	Krisi bat une edo egoera zail bat da, norbaitentzat edo zerbaitentzat; kasu honetan, egungo gizartearen oinarrian dagoen sistema guztiaren krisia da, eta ondorioz, arlo askotan eragiten duen krisia.
KARBONO DIOXIDOA:	Karbono dioxidoa gas bat da, arnasten dugunean ekoizten duguna. Horrez gain, karbonoa duten substantziak erretzean ere isurtzen da, hala nola, autoen gasolina erretzean.
TLC:	Merkataritza Libreko Itunari dagozkion siglak dira. Herrialdeen arteko merkataritza akordioak dira, zergak murriztu edo ezabatzeko produktuak herrialde batetik bestera eramatean.
EKONOMIA SOZIALA:	Ekonomia sozial eta solidarioa ekonomiaren sektore bat da, sektore publikoaren eta pribatuaren artean kokatzen dena. Sektore horren ekoizpen eta banaketa sistemaren helburua ez da irabaziak sortzea, eta ezartzen diren harremanak elkartasunean oinarritzen dira. (Hirugarren sektorea, kooperatibak, laneratzeko enpresak, etab.)
JENDARTE BAZTERKETA:	Pertsona batek edo talde batek jendartean parte hartzea oztopatzen duen egoera. Jendarte bazterketa eragiten dute diskriminazioak, pobreziak eta beste kausa askok.



AZTERTU

Zertaz ari gara?

Sistema kapitalistan, ekonomiaren helburu bakarra da ahalik eta etekin handiena lortzea. Ez dira kontuan hartzen komunitate bateko pertsonen beharrak ezta bizi diren lurraldearen beharrak ere.

Horregatik, kapitalismoarekin enpresak, fabrikak eta lanpostuak sortzen dira kostu gutxiagoren truke ekoiztea merkeagoa den lekuetan. Ez dira kontuan hartzen erabaki horiek eragin ditzaketen kalte sozialak eta ingurumenari eragindakoak.

Prozesu horri deslokalizazio deitzen zaio, zeinetan enpresek beren lantokiak beste toki edo herrialdeetara eramaten dituzten, merkeagoa delako irabaziak lortzea.

Hori aldatu dadin, eredu ekonomikoa ezberdina izan behar da. Toki bateko ekonomia toki horretan sortu behar da, komunitatearen bizitzaren parte izan dadin, bertako biztanleei lana emateko eta bertako jendarteari zerbitzuak eskaintzeko.


Pertsonen bizimodua eta zaintza izan behar da garrantzitsuena. Hortik abiatuta, pertsonen zerbitzura eratuko da bizitza jasangarriak eta ingurumenarekiko errespetua izango dituen jendartea eraikitzeko.

Eredu horri birlokalizazioa esaten zaio;
ekonomia, enpresak eta lanpostuak jatorrizko lekuan kokatzen dituelako berriz,
eta komunitate horretako pertsonen zerbitzura jartzen dituelako.

Zein da egoera?

- **Munduan**

Desitxuratutako mapa honek erakusten du herrialde batzuek eta besteek duten pisu desberdina bakoitzak duen benetako azterna ekologikoaren arabera.



2007. urtetik krisi bat bizi dugu,
eta estatuek eta enpresek krisi ekonomiko deitu diote.
Baina krisi sistemikoa da, sektore askoz gehiagori eragiten diena,
hala nola klimari, politikari, balioei edo pertsonen zaintzari.

Krisi orokor horrek frogatzen du bizi dugun sistema kapitalista
ez dela gai erantzuteko
ez pertsonen ez jendartearen beharrei.

Horrela jarraitzen badugu, krisialdiak gero eta maizago izango ditugu
eta ondorioak gero eta okerragoak izango dira.
Diru faltaz gain, baliabide natural gutxiago izango ditugu,
ingurumena gero eta kaltetuago dagoelako.
Hori dela eta, gure bizitza arriskuan egongo da.

Sistema kapitalistak ingurumena nola kaltetzen duen ulertzeko,
hona adibide batzuk:

- Herrialde aberastuetan zabor eta hondakin gehiago sortzen dira,
planetak jasan ditzakeenak baino gehiago.
Horren arrazoia da behar ditugunak baino askoz produktu gehiago
kontsumitzen ditugula.
- Herrialde aberastuek sortzen dugu planetako karbono dioxido gehiena,
nahiz eta herrialde pobretuetan askoz jende gehiago bizi den.

Krisi horiek desagertu daitezten, gure sistema sozial eta ekonomikoa ezin da kapitalismoan oinarritua egon.

Jendarteak bestelako neurriak topatu behar ditu, gizatiarragoak eta jasangarriagoak.

Eta diruaren banaketa hobe egin behar du.

Munduko diru gehiena enpresa multinazionalen esku dago.

Multinazionalak enpresa-mota bat dira,

negozioak eta lantokiak mundu zabalean dituztenak.

Beren lantokiak beste herrialdeetara eramaten dituzte,

merkeago zaielako bertan produktuak fabrikatzea

eta etekin ekonomiko handiagoa lortzen dutelako.

Ez die axola langileek lan-eskubiderik ez izatea,

edo beren jardunak ingurumena hondatzea.

Gainera, MLI (merkataritza libreko itunak) delakoetatik etekina ateratzen dute.

Herrialdeen arteko merkataritza akordio horiek

neurri onak izan litezke, ondo erabiliko balira.

Baina multinazionalak merkataritza libreko itunak erabiltzen dituzte

arauak aldatzeko eta eskubideak beren mesedera egokitzeko.

Horri esker botere handiagoa lortzen dute,

eta banku zein gobernuen erabaki asko kontrolatzen dituzte.

Pertsonen zein herrialdeen arteko desparekotasunak

areagotzen dituzte multinazionalak;

izan ere, dirua esku gutxiren artean banatzen da,

eta ondorioz, gainerako tokietan pobreak eta jendarte bazterketak

gora egiten du.

Kontraesana dirudien arren,
multinazionalak gehien kontrolatzen dituzten sektoreetako hiru,
honakoak dira:
osasuna, botikak eta elikadura.

Kapitalismoaren beste ondorioetako bat da
lana edukitzeak ez duela esan nahi pobre ez izatea.
Maiz, soldatak oso baxuak dira eta ez dira nahikoa
langilearen ezta bere familiaren beharrak asetzeko.

Emakumeen egoera munduan

Herrialde eta pertsona pobretuen taldean,
emakumeak dira txiroenak.
Gizonek pairatzen dituzten injustizia berdinak pairatzeaz gain,
arazo gehiagori egin behar diete aurre: lan-baldintza okerragoak,
soldata baxuagoak, genero jazarpena eta indarkeria, etab.

Baldintza okerrenak dituzten sektoreetako enpleguak
emakumeek bete ohi dituzte.
Sektore horiek honakoak dira: etxeko langileak, pertsonen zaintza edo garbiketa.

Deslokalizazioaren eta herrialdeen arteko desparekotasunaren
beste arazo bat da pertsonen zaintzarena.
Baliabide ekonomikorik ez duten eta herrialde pobretuetakoak diren emakumeek
beren etxeak eta familiak utzi behar dituzte, beste herrialde batzuetara joateko
bertan, diru eta botere gehiago duten familien pertsonak zaintzeko.

Beharrezkoa da bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat,
non herrialde bakoitzak bere biztanleen zaintza lanak bere gain hartuko dituen.



• Euskal Herrian

Euskal Herriko egoera sozial eta ekonomikoa pixka bat hobe da.
Horren zergatia, ekonomiaren antolaketa,
politika sozialak eta herri mugimenduen lana dira.

Hala ere, eredia antzekoa da, eta krisiak ere eragina izan du hemen.
Alderdi asko daude lantzeko eta hobetzeko.

Europako Batasunak eta Espainiako Estatuak agindutako irizpideak jarraitzea
erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak,
eta zerbitzu sozialak murriztu zituen, krisi garaian aurrezteko.

Bazeukaten boterea eta dirua bestelako politika ekonomikoak ezartzeko,
jendarteari zuzendutakoak, baina ez zuten egin.

Gauza bera gertatu da enpleguarekin.
Hemengo enpresaburuek ez zuten zertan aplikatu
Madrilen ezarritako lan-erreforma berak.
Baina hala erabaki zuten, langileria kaltetuta.

Arrazoia ez zen neurri horiek ezartzeko premia,
ekonomia hobetu zedin.
Arrazoia zen unea aprobetxatu nahi zutela,
krisiaren osteko egoerak enpresaburuei eta kapitalismoari mesedez egiteko.

Gune **plataforma sindikalak** eta bestelako jendarte mugimenduek
gogor aldarrikatu zituzten eskubide horiek,
nahiz eta ez zuten lortu nahi zuten guztia

Honako sindikatuen
osatua: ELA, LAB, ESK,
STEILAS, CGT, CNT,
EHNE eta HIRU

Krisiaren urterik zailenak pasata,
aspektu asko daude, oraindik ere, Euskal Herrian hobetzeko,
honako adibideetan ikus daitekeen moduan:

- Aztarna ekologikoak gora egin du azken urteotan.
Gure bizi-estiloak ingurumenean dituen ondorio negatiboek
aztarna ekologikoa eragiten dute.
Bilbo da, Euskal Herrian, aztarna ekologiko handiena duen hiria
- Azken urteotan gora egin du bertako pertsona pobreen kopuruak,
eta baita jendarte bazterketa pairatzen duten pertsona kopuruak ere.
Pobrezia erreala handiagoa da
familiaburua emakumea den kasuetan

Hala eta guztiz ere, pentsatu nahi dugu etorkizunean Euskal Herriak
eraldatzeko aukerak dituela,
eredu gizatiarragoa eta jasangarriagoa ezartzera bidean.

Gero eta entitate eta jendarte-eragile gehiago sortzen ari dira
ekonomia soziala oinarri duten ekimen solidarioekin,
eta pertsonen bizi kalitatea zein ingurumenaren zaintza
babesten duten balioekin.

Saharaz hegoaldeko Afrikan **16 pertsonak mila milioitik** gorako kapitala daukate eta **358 milioi** pertsonak muturreko **pobrezia pairatzen** dute.

Pobrezia pairatzen duten pertsonen **%70 emakumeak dira** (Nazio Batuak).

Espainiako Estatuan, **biztanleen %1ek, %70ek** adina aberastasun pilatzen du.

Espainiako Estatuko pertsona bakoitzak **6,4 hektarea** behar ditu kontsumitzen duen guztia asetzeko.

Egokitu beharko litzatekeena baino **3 aldiz gehiago da**.
Hortaz, **ez daukaguna kontsumitzen ari gara**.

Euskal herritarren **%15** bazterkeria arriskuan dago: 334.000 pertsona.
90.000 pertsona **egoera oso larrian daude**. (Cáritas. 2019)



ALDARRIKATU


Zein dira gure proposamenak?

Beharrezko neurriak:

1. Ekonomia pertsonen zerbitzura dagoen bitarteko gisa ulertzea.
Dirua irabazteaz gain, ongizate komuna eta ingurumena zaintzea ere helburu izango dituen bitartekoa.
2. Merkataritza libreko itunak ekiditea.
Multinazionalei soilik mesede egiten diete, eta gehiengoaren bizi-kalitatea okertzen dute.
3. Eguneko lan-orduak murriztea,
lan ordainduko denbora pertsona gehiagoren artean banatzeko.
4. Pertsona orok hileror errenta bat jasotzen dutela bermatzea,
bizitza duina bizi ahal izateko.
5. Baliabideak eta aberastasuna modu justuan banatu ahal izatea,
pertsona aberats eta pobreen artean hainbesteko ezberdintasunik egon ez dadin.
6. Feminismoa eta bizimodu jasangarria
instituzio guztien lanaren oinarria izan daitezen sustatzea.
7. Gehien kutsatzen duten sektoreen lan-politikak aldatzea,
eta eredu ekologikoago eta osasungarriago batekin ordezkatzeta.

8. Ekonomia sozial eta solidarioa babestu eta zabaltzea, politika ekonomikoan behar diren aldaketez ohartarazteko.


9. Instituzioetako langile teknikoak eta politikariak informatzea, sistema hori babestuko duten ekonomia solidarioaren eta politika publikoen beharraz



ARITU

Zer egin dezakegu? Alternatibak

- Gauza gutxiago erostea, dauzkagunak gehiago zaintzea eta erabiltzen ez ditugunean beste erabilpen bat ematea.
- Kontzientzia etikoa duten entitate finantzarioak eta enpresak erabiltzea, ekonomia pertsonen zerbitzura jartzen baitute.
- Gure auzoko dendetan erostea, eta bigarren eskuko produktuak erostea.
- Enplegua eta bizitza duina izateko eskubidea ez lotzea.
- Gure inguru hurbilean egindako produktuak kontsumitzeko, ekologikoak, sasoikoak....



Informazio gehiago:

- **Finantzaz Haratago, Finantza Etiko eta Alternatiboetako Hezkuntzaren Euskal Sarea** (sakatu [hemen](#)).
- **Euskadiko Merkatu Soziala** (sakatu [hemen](#)).
- **REAS, Red de Economía Alternativa y Solidaria** (sakatu [hemen](#)).
- **Zentzuz Kontsumitu, Vitoria-Gasteizko Kontsumo Kontziente eta Arduratsurako Sarea**, hirian kontsumitzeko aukeren maparekin (sakatu [hemen](#)).
- **Saretuz, Kontsumo Kontziente eta Arduratsurako Donostiako Sarea**, hirian kontsumitzeko aukeren maparekin (sakatu [hemen](#)).
- **Setem Hego Haizea** (sakatu [hemen](#)).
- **Emaús Fundación Social** (sakatu [hemen](#)).
- **ESK** (sakatu [hemen](#)).----



www.decrecimientoymbuenvivir.info

Facebook:

[https://www.facebook.com/ DesazkundeBuenVivir/](https://www.facebook.com/DesazkundeBuenVivir/)

Twitter: @Desazkunde_Bizi

Erakunde guzti hauekin elkarlanean egina:

Bizilur, EHNE Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Ingeniería sin Fronteras, Emaús Fundación Social, Setem Hego Haizea, Desazkundera (especialmente el grupo Femnismos Desazkundera), Asociación de Trabajadoras del Hogar (ATH), ESK Sindikatua, Fundación Zadorra, Economistas sin Fronteras, REAS Euskadi, (Red de Economía Alternativa y Solidaria), Coordinadora de ONGD de Euskadi, Saretuz (Red de Consumo Responsable, Consciente y Transformador de Donostia), Zentzuz Kontsumitu (Red de Consumo Consciente y Responsable de Vitoria-Gasteiz), Alianza Política Sector de Mujeres (Guatemala) y el Centro de Mujeres Xochilt Acatl (Nicaragua) y Mugarik Gabe.